

Unibasq-ekin lan egiten duten ebaluatzaileak hautatzeko protokoloa

(Unibasqeko Aholku Batzordeak 2021eko irailaren 16an onartua)

Aurkibidea

1. Sarrera eta helburuak
2. Ebaluatzaileak hautatzeko irizpide orokorrak
3. Hautagaiak erakartzea
4. Ebaluatzaileak hautatu eta izendatzea
5. Ebaluatzaileen jarduera
6. Ebaluatzaileen jarraipena eta ebaluazioa

1. Sarrera eta helburuak

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako (aurrerantzean Unibasq) ebaluazio-programetan parte hartzen duten ebaluatzaileak hautatzeko prozedura eta irizpideak ezartzea da dokumentu honen helburua

2. Ebaluatzaileak hautatzeko irizpide orokorrak

Protokolo honetan deskribatzen diren ebaluatzaileak hautatzeko irizpide orokorrak honako hauetan oinarritzen dira: European Association for Quality Assurance (ENQA) erakundeak garatutako *Standards and Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area (ESG)*, irizpideetan eta *European Consortium for Accreditation (ECA)* erakundeak adostutako *Principles for the Selection of Experts* irizpideetan. Horiek guztiak ebaluazio-prozesu bakoitzari dagozkion dokumentazioan zehazten dira eta Unibasq erakundearen web-orrian daude ikusgai (www.unibasq.eus). Halaber, kontuan hartzen dituzte Unibasq-en ekainaren 28ko 13/2012 Legean eta Unibasq-en Estatutuak onartzen dituen apirilaren 16ko 204/2013 Dekretuan ebaluatzaileak hautatzeko ezartzen diren baldintzak.

Agentziako ebaluazio-batzorde eta -batzordeetarako ebaluatzaile adituak eta ebaluazio-prozesuetan parte hartzen duten adituen panelak hautatzeko, irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan:

- *Ospea*: ebaluatu beharreko arloan ospe eta esperientzia handia duten pertsonak izan behar dute.
- *Independentzia*: objektibotasunez, zorrotasunez eta irizpideekiko independentziaz egingo dute haien lana, eta ez kide diren kolektibo edo erakundeen ordezkari gisa.
- *Genero-berdintasuna*: agentziako organo teknikoetako kideak aukeratzean, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da, gutxienez sexu bakoitzaren % 40 egongo dela bermatzeko.
- *Lurralde-jatorria*: EUSeko ebaluazio-prozesuetan parte hartzen duten ebaluatzaileek beren jarduera profesionala sistema horretatik kanpo egin dezaten ahaleginduko gara, EUStik kanpoko ebaluazio-prozesuen kasuan izan ezik; halaber, ezin izango dute EUSrekin lotura akademiko esturik izan, horrek haien independentzia zalantzan jartzen badu. Ebaluazio- Batzordeen kasuan, ebaluatzaile gehienak EUSko unibertsitateetatik kanpokoak izango dira.
- *Nazioarteko parte-hartzea*: ahalegina egingo da nazioarteko ebaluatzaile aditu bat sartzen, komiteetan, batzordeetan eta ebaluazio-paneletan.
- *Stakeholder-en parte-hartzea*: ahal dela, kanpoko stakeholder bat sartuko da komiteetan, batzordeetan eta ebaluazio-paneletan.

- *Ikasleen parte-hartzea*: ikasle bat sartuko da beti agentziaren komite eta batzordeetan eta ebaluazio paneletan (ikerketan ebaluatzeko prozesuetan eta pertsonen ebaluazio-prozesuetan izan ezik, jakina).
- *EAEko hizkuntza ofizialen ezagutza*: ahalegina egingo da EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutza duten ebaluatzaileak sartzen komite, batzorde eta ebaluazio-paneletan.
- *Txandakatzea*: Ebaluatzaileen esleipena, ahal den guztietan, txandakatze-printzipioaren arabera egingo da.

3. Hautagaiak erakartzea

Unibasqek eskura dituen baliabide guztiak ezarriko ditu langile akademikoak, ospe handiko profesionalak eta ebaluazio lanetan parte har dezaketen ikasle nazionalak nahiz nazioartekoak erakartzeko.

Ebaluatzaileak erakartzeko aukerako bideen artean honako hauek aipa daitezke: Agentziak horretarako garatu duen Ebaluatzaileen Bankua; Aholku Batzordeak edo beste ebaluatzaile batzuek egindako proposamenak; Estatuko eta nazioarteko kalitatea ebaluatzeko agentzien artean baimendutako datu-baseak trukatzearen ondoriozko proposamenak; I+G+B jarduera akademikoa ebaluatzeko agentzien sareak, nazioartekoak, nazionalak eta sare sozialak.

4. Ebaluatzaileak hautatu eta izendatzea

Agentziaren webgunean argitaratuko dira, erraz eskuratzeko moduan, prozesu bakoitzean parte hartzeko beharrezkoak diren ebaluatzaile edo ebaluatzaile betekizunak eta profil mota.

Ebaluazio-txosten bat egiteko komite edo batzorde bat eratu behar denean, eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, zuzendaritzak Unibasqeko Aholku Batzordeak proposatuta izendatuko dituen ebaluatzaileak hautatuko dira, beti ere hautatutako ebaluatzaileak Unibasqeko Etika eta Bermeen Kodea onartu eta sinatu ondoren. Komite edo batzordeetan parte hartzen duten ikasleen kasuan, Euskadiko Unibertsitate Ikasleen Aholku Batzordeari proposatuko zaizkio ebaluatzaile izateko profil eta prestakuntza egokia dutenak.

Agentziako ebaluazio-batzordeetan parte hartzen duten pertsonak hiru urterako izendatuko dira, eta ezingo dira berriz izendatu ebaluazio-programa berean, kargua utzi eta hiru urte igaro arte. Batzorde horien osaera Agentziaren webgunean argitaratuko da, ebaluatzaile bakoitzaren curriculum laburrarekin batera, ESGek ezartzen dituzten baldintzak betez.

5. Ebaluatzaileen jarduera

Unibasq-en ebaluazio prozesuak egiten dituzten pertsona guztiek beren izenean eta irizpide independenteekin egiten dute lan, eta ez haien talde edo erakundeko ordezkari gisa. Komiteetan, batzordeetan eta ebaluazio-paneletan kide anitzeko organo baten lana betetzen dute.

Ebaluatzaileek Unibasqeko Etika eta Bermeen Kodearen arabera jardun beharko dute, eta "Etika-kodea onartzea eta konfidentzialtasuna, inpartzialtasuna eta interes-gatazkarik eza aitortzea" eranskina sinatu beharko dute.

Beharrezkoa izanez gero, Unibasq-ek beharrezko prestakuntza emango die ebaluatzaileei, haien lana kalitate-estandar eta -irizpide zorrotzenen arabera egin dezaten. Pertsona horiei eskaintzen zaien prestakuntza pertsonalizatua izango da, ebaluatzaile bakoitzaren profil pertsonalari eta parte hartzen

duen ebaluazio-prozesuari egokitua. Ebaluatzailearen profilaren eta esperientziaren arabera, prestakuntza ekintza desberdinak ezarriko dira, prestakuntza orokorrenetik prozesu bakoitzeko prestakuntza berariazkoenera bitartekoak. Prestakuntza, ahal dela, online egingo da, betiere jarduera egin aurretik.

6. Ebaluatzaileen jarraipena eta ebaluazioa

Ebaluatzaileei eta horiek osatzen dituzten ebaluazio-batzordeei egindako lana etengabe hobetzeko irizpideak aplikatzeko, haien lanaren ebaluazioa egingo da. Alde batetik, Agentziako teknikariek ebaluatzaile bakoitzaren lana modu formalean egin den ebaluatuko dute. Halaber, parte hartu duten prozesuaren ebaluazioa egiteko eskatuko zaie ebaluatzaileei.